


PASTORALTZA PLANANA



Sagrado Corazón
MUNDAIZ
IKASTETXEA

2024-25 ikasturtea
Pastoraltza eta Gizarte Ekintza Saila




Sagrado Corazón Mundaiz

Pastoraltza eta Gizarte Ekintza Saila



AURKIBIDEA

1. Sarrera: Pastoraltza eta misio ebanjelizatzailea.
2. Izaera eta karisma corazonista.
 - . Konfiantza proiektua
 - * Oinarri pedagogikoak
 - * Balioak
- 3.- Ikastetxeko giza-ingurua
4. Pastoraltza-proposamena
 - . Hezkuntza-pastoraltza: ezaugarriak
 - . Hezkuntza elkarte eta kristau elkarte: partekatutako misioa.
 - . Pastoraltza-ekintzaren hartzaileak
 - * ikasleak
 - * irakasleak
 - * familiak
 - * administrazio eta zerbitzuko pertsonak
 - * monitoreak eta aurre-monitoreak
 - . Pastoraltza-ekintza
 - . Pastoraltza planaren helburuak
 - . Lan eremuak
 - * Ikasturteko goiburua
 - * Goizeko otoitza
 - * Otoiztegia
 - * Barnekotasuna
 - * EIE: Eskolako Erlijio-Irakaskuntza
 - * Tutoretza-bizikidetzak
 - * Bokazio-bizikidetzak
 - * Osparkizun-plana
 - * Institutuaren 2. mendeurreneko ospakizuna
 - * Partekatutako misio-taldea (Sustraiak)
 - * Aisialdia
 - * Giza-ekintza
 - * Boluntarioria
 - * Udako ekintzak



Sagrado Corazón Mundaiz

Pastoraltza eta Gizarte Ekintza Saila

*Ekintza apostolikorako
esparru pribilegiatutzat
jotzen dugu eskola:
pertonari formazio integrala
emateko berariazko
erantzukizuna dugu.*



Sagrado Corazón Mundaiz

Pastoraltza eta Gizarte Ekintza Saila

1.- SARRERA: PASTORALTZA ETA MISIO EBANJELIZATZAILEA

- Pastoraltzaz ari garenean, Elizak bidalita, ebanjelioa zabaltzeko egiten dugun ekintza oroz ari gara eta Heziketa Elkarte osoaren zeregina da.
- Ikastetxeko Pastoraltza plana gure Institutuko berezko izaeran eta Aita Andres Coindreren heziketa-estiloan oinarritzen da. Familia-giroa bizi da ikastetxean eta pertsona bakoitza hartzen da kontutan.
- Heziketa Elkarte osoari zuzentzen zaio pastoraltza plana (ikasleei, irakasleei, administrazio eta zerbitzueta pertsonari, familiei, heziketa lana osatzen duten guztiei) eta bere xedea ikastetxeko pastoraltza-plan osoa definitzea eta orientatzea da helburuei, ekintzei eta jarduerari dagokienez.

2.- IZAERA ETA KARISMA CORAZONISTA

- Ikastetxe kristaua gara. Gure erakunde titularra Jesusen Bihotzaren Anaien Institutua (Corazonistak) da. Izaera eta berezko karisma mantentzen du Probintziako ikastetxe guztietan beronek.
- Sortu zenetik, eta azken 200 urteetan, hezkuntzaren bidez hartzen dute parte Elizaren misioan Jesusen Bihotzaren Anaiak.
- Erantzun konprometitua eskaini zion garaiko gizarteari eta bere hiriarri Aita Andres Coindrek XIX. mendean, kaleko neska-mutilen HEZKUNTZAREN bidez hasieran, landa-gunekoekin geroago.
- “Gazteei irakastea eta Jainkoaren maitasunaren ezagutzan hezte” izan zen bere misioa. Anaiak zabaldu zuten geroago misio bera. Jesusen jarraitzaile dira Anaiak, Elkartean bizi dira eta eskolan gauzatzen dute bere misioa.
- 1821ean Klean aurkitutako zenbait neska-mutil aldendu nahi izan zituen Aita Andreak bertako arriskuetatik eta Jainkoaren maitasunera ireki. Hala sortu zen Jesusen Bihotzaren Anaien Institutua. Fundazioaren 2. mendeurrena ospatuko genuen joan den ikasturtean.
- Eskola Corazonista ebanjelioa bizitzen saiatzen da hain eta gazteen hezkuntzaren bidez. Corazonista batentzat heziketa ebanjelizazioa da eta ebanjelizazioa heziketa.
- Gure heziketa estiloari jarraituz, ikaslea da gure zereginaren gunea, bere formazio





Sagrado Corazón Mundaiz

Pastoraltza eta Gizarte Ekintza Saila

akademikoa bermatuz, balio corazonistak, (konfiantza, errukia, ahalegina, apaltasuna eta espiritualitatea) garatuz, Nazaretoko Jesusengan oinarrituta beti ere.

- “Konfiantzaren pedagogia” deitu dugun berezko pedagogiaren aldeko apustua egin dugu ikastetxe Corazonistetan. Ikaslea da beti ere lehentasuna. Benetan sinesten dugu eta konfiantza osoa dugu ikasleak arlo guztietan duen hobetzeko gaitasunean.

- “Konfiantza proiektua” da, beraz, gure heziketa estiloaren iturria. Bost metodologia oinarrik eta bost baliok osatzen dute:



***Adimen anitzak:** Ikasle oro da ikasteko gai baldintza egokiak aurkitu eta bere gaitasunak kontutan hartuz gero. Ikasle bakoitzak era eta erritmo desberdinean ikasi ohi du. Ikasle bakoitzaren ikasketa-prozesuari erantzuten saiatzen gara.

***Irakurketa eta idazketa:** Gure ikastetxeak “ikastetxe irakurleak” izatearen beharraz konbentzita gaude. Gero eta konplexuagoa den munduan aurrera egiteko aukera izan dezaten ezinbesteko tresnatzat jotzen ditugu irakurketa eta idazketa. Entzute-gaitasunak, irakurritakoaren ulermenak, idatzizko adierazpenak eta ahozko adierazpenak osatzen dute ikastetxe corazonisten irakurketa plana. Hizkuntzetako irakasgaietan bereziki lantzen bada ere, beste arlo guztietan ere garatzen dugu.

***Kirola eta aisildia:** Pertsonaren garapen osoa dugu helburu: pertsona orekatuak, autonomoak, bere bizitzaren erantzuleak hartzeko gaitasuna dutenak, eta ondokoekin errespetoz jokatu duten pertsonak, hain zuzen ere. Kirola eta aisialdia, bizitza sana eta orekatua eramateko ezinbestekoak izateaz gain, esparru bereziak ere badira gure balioak jorratzeko.

***Aniztasunari arreta:** Bakarra eta errepikaezina da ikasle bakoitza eta bakarkako arreta merezi du. Gutako bakoitza desberdina da. Aberastu egiten gaitu aniztasunak. Gurasoen, irakasleen eta Orientazio sailaren elkarren arteko lanak bermatzen dituzte ikasleen arretarako protokoloak eta bakarkako arreta. Bereziki zaintzen dugu taldeko zein bakarkako tutoretza, ikaslearen akonpainamendurako une ezin hobeak baitira.

***Baliok lantzea:** Pertsona gizakoiagoa, konprometituagoa eta Jainkoarengandik hurbilagoa egiten duten balioak jorratzen ditu gure eskolak. Honakoak dira balio corazonistak:

***Konfiantza:** Ikaslearen bere buruarekiko eta dituen gaitasunekiko konfiantza, besteenganako konfiantza eta Jainkoarengandik konfiantza. Konfiantza-leku da gure eskola zeinetan ikasketa akademikoak eta bizitarakoak lantzen diren.

***Errukia:** Jesusengandik eta Aita Andres Coindrerengandik ikasten dugu. Beste pertsonaren errealitatean jartzera garamatza errukiak, berarekin empatia izatera eta aske zein zoriontsu bizitzen uzten ez dion egoeratik ateratzen laguntzera. Ikasleak gizarteak bizi duen errealitatearekin eta ondoko pertsonarekin konprometi daitezten, gutxien dutenekin eta



Sagrado Corazón Mundaiz

Pastoraltza eta Gizarte Ekintza Saila

gizartetik baztertuta daudenekin solidarioak izan daitezen saiatzen gara.

***Ahalegina:** Mundu gizakoiagoa eraikitzen saiatzeak ahalegina eta diziplina behar du. Ikasteak eta norberaren helburuak lortzeko ezinbestekoa da ahalegina eta jarraikortasuna. Ikaslearen ahalegintzeko gaitasunari eta erantzukizunari garrantzia ematen diogu.

***Apaltasuna:** Apaltasunak harrokeriak baino indar handiagoa duelakoan gaude. Besteen gaintetik egotera, kontsumitzera, besteez eta "Denon Etxeaz" ez arduratzera gonbidatzen gaituen gizartean, apaltasunean hezi nahi ditugu ikasleak.

***Espiritualitatea:** Jainkoa ezinbestekotzat jotzen dugu pertsonaren bizitzan. Horregatik lantzen dugu adimen espirituala, gaitu egiten gaituelako bizitzari haratagoko zentzua emateko, kontzienteago bizitzeko, barnekotasuna sustatzeko eta ebanjelioari arreta egiteko.

3.- IKASTETXEAREN GIZA INGURUA

- Sagrado Corazon- Mundaiz Ikastetxea Berezko Izaera duen Kristau Eskola sareko ikastetxe konfesionala da.
- Itunpeko ikastetxea da Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, DBH eta Batxilergoan.
- Donostiako Egia auzoan dago kokatuta, Cristina Enea parkearen ondo-ondoan eta ongi komunikatuta dago Amara eta Loiolako Erriberak auzoekin. Erdi-goi mailako familiak dira gehien bat gure ikastetxera datozenak, eta, kasu gehienetan, aitak eta amak egiten dute lan etxetik kanpo.
- Anitza da ikastetxeko familien profila:
 - . Bere seme-alabak ere kristau balioetan hezten jarraitu nahi duten kristautasunean hezitako gurasoak.
 - . Ikastetxean esperientzia ona bizi izan duten aitzin-ikasleak eta bere seme-alabentzat ere esperientzia bera nahi duten gurasoak.
 - . Ikastetxe "serioa" eta hezkuntza akademiko egokia eskainiko dien ikastetxea nahi duten gurasoak.
 - . Etxetik gertu egoteagatik gure ikastetxea aukeratu duten gurasoak.

4.- PASTORALTZA PROPOSAMENA

4.1.- Hezkuntza pastoraltza. Ezaugarriak

- Gure pastoraltza proposamenaren xedea kristau ibilbidea sustatzea da Corazonisten Hezkuntza proiektuaren barnean, hezkuntza estiloaren eta Berezko Izaeraren arteko koherentzia sustatuz.
- Eskola, honen zentzu zabalenean, du gune gure Hezkuntza pastoraltzak: ikasteko leku ezezik, bizitza-esparru, pertsonaren arlo desberdinak lantzeko aukera eskaintzen duen hezkuntza plataforma ere baita.
- Haur eta gazteek FEDEA pertsonaliza dezaten egiten dugun ebanjelizazio-prozesua



Sagrado Corazón Mundaiz

Pastoraltza eta Gizarte Ekintza Saila


da:

- * Nazareteko Jesus ezagutu eta hari atxikitu.
- * Elkarre-zentzua esnarazi.
- * Kristau konpromisoan hezi.
- * Elizaren partaide izate-zentzua landu.

- Izaera berezia eskaintzen dioten ezaugarriak ditu:
 - **MISIOLARIA:** Tradiziozko kristautasuna gaindituz, kristau izatearen zentzu sakona zein den eta norberaren konpromisoa zabaltzen saiatzen den pastoraltza.
 - **PROFETIKOA:** Hezkuntza arloan, behartsuenen hezkuntzan bereziki, gure eskola Jainkoaren Erreinuaren zeinu dela bermatzen duen pastoraltza.
 - **HASIERAKOA:** Giza eta kristau ibilbidearen oinarriak sendo ezarri nahi dituen pastoraltza.
 - **INTEGRATZAILEA:** Giza kultura eta ebanjelioaren mezu uztartzen dituen pastoraltza.
 - **ELIZAKOA:** Eliza unibertsalaren eta bertakoaren pastoraltzan errotutako pastoraltza.

4.2- Hezkuntza Elkarrea eta kristau Elkarrea. Partekatutako misioa.

- Zaila da kristau hezkuntza aurrera eramatea hezkuntza Elkarre erreferentearen testigantzarik gabe.
- Oinarrizko eta funtsezko bi elementuz baliatzen da:
 - * Ebanjelizazio-bide nagusia den Hezkuntza Proiektua.
 - * Kristau Elkarre izaten saiatu behar duen Hezkuntza Proiektua gauzatzen duen Hezkuntza Elkarrea.
- Jesusen Bihotzaren Anaien Elkarrea da karisma Corazonista eta ikastetxearen kristau hezkuntza estiloa bermatzen saiatzen dena.
- Hala ere, ezinezkoa izango litzateke ikastetxearen Berezko Izaera mantentzea ikastetxeko irakasle laiko gehiengoaren konpromisorik eta lanik gabe.
- MPT-Sustraiak (Misio Partekatuaren Taldea) taldeak aurrera jarraitzen du ikastetxean. Bere xedea ikastetxeko Kristau Elkarre erreferentea sortzen joatea da. Anaiak zein irakasle, langile, irakasle-ohi eta ikasle-ohi laikoek hartzen dute parte taldean.
- Funtsezko tokia hartzen du Pastoraltza Proiektuak Corazonisten Hezkuntza Proiektu Instituzionalean. Honako egitura du:
 - o Pastoraltza taldea: ikastetxeko ekintza pastoraltza osoaren animatzailea eta bultzatzailea da. 6 irakaslek osatzen dute. Astero bildu ohi dira ordu betez ikastetxeko pastoraltzaz hausnartzeko eta pastoraltza ekintza guztiak antolatzeko.
 - o Pastoraltza-koordinatzailea: Bera da, Pastoraltza Taldearen laguntzaz, ikastetxeko pastoraltza plana koordinatu, animatu eta gauzatu dadin ardura



Sagrado Corazón Mundaiz

Pastoralta eta Gizarte Ekintza Saila

hartzen duena.

- o Hona hemen Pastoralta Taldearen osaketa:

Pastoralta koordinatzailea	
Gizarte ekintzaren arduraduna	
Otoiztegiaren arduraduna	
Barnekotasunaren arduraduna	
Aisialdiko arduraduna (Twister)	
Etapako bakoitzeko irakasle bat.	HH LH DBH BATX



Sagrado Corazón Mundaiz

Pastoralta eta Gizarte Ekintza Saila

4.3.-Pastoralta ekintzaren hartzaileak

IKASLEAK

- Ikastetxeko ikasketa prozesuaren protagonista nagusiak dira. Haur Hezkuntzan hasi eta Batxilergorainoko ikasleak ditugu ikastetxean. Etapaka egokitzen ditugu pastoralta ekintzak eta materialak.

IRASKASLEAK

- Irakasleak dira ikastetxeko Hezkuntza eta Pastoralta plana aurrera eramatearen arduradun nagusiak.
- Irakasleen gehiengoak laguntzen du Pastoralta lanean nork bere errealitatetik. Irakasleek garbi daukate Pastoralta dela ikastetxeko Hezkuntza planaren ardatz nagusia.
- Hezitzaile sentitzen dute bere burua irakasleek eta konfiantza agertzen dute ikasleekiko. Arlo akademikoan ezezik pertsonalean eta espiritualean ere laguntzen diete ikasleei errespetoz, askatasunez, konfiantzaz jokatzuz, fedearen eta bizitzaren arteko kohesioa sustatzen dutela.



Sagrado Corazón Mundaiz

Pastoraltza eta Gizarte Ekintza Saila

FAMILIAK

- Gurasoak dira bere seme-alaben ikasketa prozesuaren eta fedearen transmisioaren erantzule nagusiak.
- Ikastetxeko zenbait familia tradizio kristauan hezitakoak dira eta kristau balioetan oinarritutako hezkuntzaren bila datoz ikastetxera. Ez da gehiengoa guraso talde hori. Guraso talde handiak ez du gure ikastetxea aukeratzen erlijio heziketa edo kristau konpromisoarengatik. Baina positiboki balioztatzen dute guraso horiek seme-alabei eskainitako giza eta kristau formazioa ere.
- Banandutako edo dibortziatutako gurasoen seme-alaben kopurua gero eta handiagoa da ikastetxean.
- Erlijioarekiko sentsibilizazioa eta parte hartzea desberdina da familien arabera. Oro har, saiatu egiten dira seme-alabaren haurtzaroko erlijio formazioan eta ardua hartzen dute Lehen Jaunartzeko katekesi taldetan parte har dezaten. Handitzen joan ahala, bai ikasleak bai familiak gero eta “hotzago” agertu ohi dira erlijioari eta fedeari dagokionez.
- Hala ere, interes handia somatzen dugu ikasle helduenen artean Giza Ekintza arloan eta sail horretan ikastetxeak eskaintzen dizkien ekintza guztietan parte hartzen dute.
- Aisialdiko Twister taldean parte hartzen duen ikasle kopuruak ere nabarmen egin du gora.

ADMINISTRAZIO ETA ZERBITZUETAKO LANGILEAK

- Nor bere postutik saiatu ohi da Hezkuntza eta Pastoraltza lanean, Instituzioko proiektuaren eta ikastetxeko Berezko Izaeraren partaide baitira.

BEGIRALEAK

- Ikastetxeko aitzin-ikasleak edo 2. Batxilergoko ikasleak dira begirale gehientsuenak. Pastoraltza proiektuaren funtsezko partaideak dira. Beraz, ezinbestekoa da begiraleen formazioa.
- Sarean egiten dugu lan arlo honetan Probintzia mailan eta buru-belarri gaude murgilduta lan horretan. Begirale zein aurre-begirale talde sendoa eta motibatua daukagu une honetan eta gogo handiz hartzen du parte ikasleen Hezkuntza eta Pastoraltza lanean.

4.4.- Pastoraltza ekintza

- Egunerokoan garatzen dugu ikasturtean zehar pastoraltza-lana, giza eta kristau balio eta jarrerak sustatzen saiatzen baikara: harrera, laguntza, askatasuna, errukia, konfiantza... Hala ere, badira zenbait une berezi lan honetan:
 - . Goizeko hausnarketa-otoitz unea.
 - . Erlijioeko saioak.
 - . Ikasturtean zehar egindako ospakizunak.
 - . Urtean zehar egindako kanpainak.
 - . Otoiztegia eta barnekotasuna.



Sagrado Corazón Mundaiz

Pastoraltza eta Gizarte Ekintza Saila

- . Aisialdia.
- . Udako ekintzak.

4.5.-Pastoraltza planaren helburuak

HELBURUAK	BITARTEKOAK / EKINTZAK	ARDURADUNA(K)
1. Gero eta gehiago lotu gure pastoraltza plana Probintzia mailakoarekin.	<ul style="list-style-type: none"> - Ikasturteko GOIBURUA. Probintzian sortutako materialak erabili maila guztietan. - Probintziako beste zenbait ikastetxerekin batera parte hartu Pastoraltza ekintzetan: Twister (Gasteiz, Telleri), begiraleen formazioa, bizikidetzak... - Probintziako udako ekintzetan parte hartu: Altsasu, Gares, Santutegien ibilbidea, Santiago Bidea, Frontera Sur. - Probintziako beste zenbait lerro estrategiko lantzen jarraitu: goizeko otoitza, otoiztegia, barnekotasuna, bizikidetzak-plana, aisialdia... 	<ul style="list-style-type: none"> - Pastoraltza taldea. - Tutoreak. - Pastoraltza taldea - Pastoraltza taldea. Aisialdiko arduraduna eta bere taldea. - Pastoraltza taldea. Aisialdiko arduraduna. - Irakasleak. - Pastoraltza taldea.
2. Pastoraltza taldea eta Giza ekintza taldea indartu.	<ul style="list-style-type: none"> - Ikastetxeko etapa guztiek dituzte ordezkariak Pastoraltza taldean. - Giza-ekintzako arduraduna Pastoraltza taldeko kide da. - Pastoraltza taldeko kide guztiek ordu bete dute astero ordu berean elkartu ahal izateko. - Giza ekintzak bere talde propioa sortu du. - Pastoraltza taldeko bilera guztien akta ikusgai dago Driven. 	<ul style="list-style-type: none"> - Zuzendaritza. - Pastoraltza taldea. - Zuzendaritza. - Zuzendaritza - Giza ekintzako arduraduna - Pastoraltza taldeko kidea.
3. Ikastetxeko etapa eta maila guztietan egin goizeko otoitza. "Ikastetxeko kulturaren" parte izan dadila naturaltasunez.	<ul style="list-style-type: none"> - Irakasleei goizeko otoitzerako materialak eskaintzen jarraitu. - Goizeko lehenengo minutu horiek otoitzerako direla jakinarazi eta egitera animatu. Minutu horiek ez dira irakaslearenak instituzioarenak baizik. 	<ul style="list-style-type: none"> - Pastoraltzako arduraduna - Pastoraltza taldea eta Zuzendaritza taldea.
4. Barnekotasun-kultura sustatu.	<ul style="list-style-type: none"> - Goizeko otoitzean. - Otoiztegia: LH 1- 6 - Barnekotasun-saioetan: DBH1-Batx 2 - Irakasleen formazioarekin jarraitu barnekotasunean. 	<ul style="list-style-type: none"> - Irakasleak - Pastoraltza taldea - Arlo bakoitzeko arduraduna.
5. Irakasleen eta irakasleen bokazio kultura esnarazi: "bokazioa iratzarri".	<ul style="list-style-type: none"> - Bokazio bizikidetzak: LH 6 / DBH / Batx. - Tutoretza planean sartu. - Irakasleentzako formazio-ekintzak: 	<ul style="list-style-type: none"> - Tutoreak - Probintziako Bokazio Pastoraltza taldea. - Orientazio mintegia.



Sagrado Corazón Mundaiz

Pastoraltza eta Gizarte Ekintza Saila

	MPT, Karismari buruzko formazioa	- Arduradunak
6. Ikastetxeko aisialdia sustatzen jarraitu: Twister. Lanean jarraitu monitore taldearekin: formazioa, partaide izatearen zentzua...	<ul style="list-style-type: none"> - Aisialdia LH 4. mailatik DBH 3. mailara. (larunbat arratsaldeak 16:00-18:00). - Monitoreentzako formazio saioak. - Monitorean titulazioak. - Monitorean elkarbizitzak. - Probintziako ekintzetan parte hartu: elkarbizitzak, formazio saioak, monitorearen eguna, udako ekintzak... 	<ul style="list-style-type: none"> - Pastoraltza taldea eta aisialdiko arduraduna. - Aisialdiko arduraduna eta monitore taldea.
7. IEI/ERE indartu: helburuak, metodologia, materialak...	<ul style="list-style-type: none"> - Erlijio materialen azterketa egin eta maila bakoitzean erabili beharrekoak finkatu. - Erlijioa irakasten duten irakasleei lagundu. 	<ul style="list-style-type: none"> - Pastoraltza taldea eta zuzendaritza. - Pastoraltza taldea.
8. Ikasleei fedea ospatzeko aukera eskaini urtean zehar egiten ditugun ospakizunen bidez, esanguratsuak gerta dakizkien saiatur.	<ul style="list-style-type: none"> - Ikasturtean zehar egindako ospakizunak. 	<ul style="list-style-type: none"> - Pastoraltza taldea.
9.- Boluntario izatearen kontzientzia zabaltu ikasleen artean.	<ul style="list-style-type: none"> - Boluntarioritza plana: TXARA... - Kanpainak: DOMUND, Eguberriak, Kanpaina solidarioa... - Gizarte ekintza. 	<ul style="list-style-type: none"> - Pastoraltza eta Gizarte Ekintza taldeak.
10.- Misio Partekatua sustatu Anaia eta irakasleen artean.	<ul style="list-style-type: none"> - MPT (EMC) hileroko topaketak. - MPT (EMC) Probintzia mailako urteroko topaketa eta erretiroa 	<ul style="list-style-type: none"> - LEB / CSyR - Arloko arduradunak.
11.- Gurasoek ikastetxeko Pastoraltzan parte har dezaten saiatu.	<ul style="list-style-type: none"> - Pastoraltza planaren informazioa ikastetxeko WEB orrian: helburuak, egutegia, ekintzak... - Gurasoek Pastoraltza planean agertzen diren zenbait ekintzatan parte har dezaten sustatu: Eguberri kanpaina, kanpaina solidarioa, Bakearen eguna... 	<ul style="list-style-type: none"> - Pastoraltza taldea.
12.- IKTak erabili Pastoraltzan	<ul style="list-style-type: none"> - Lana sarean. - Pastoraltza taldeko unitatea elikatu. 	<ul style="list-style-type: none"> - Ikastetxeko IKT taldea. - Pastoraltza taldea

4.6.-Lan eremuak

*IKASTURTEKO GOIBURUA

- “Konfiantza proiektuak” bost balio nagusi garatzen ditu. Horietako bat ahalegina da. Aurten umiltasunaren balioa lantzea dagokigu.. Erabiliko dugun goiburua “Gutxiago gehiago da” izango da.
- Ikastetxeko etapa guztietan (HH, LH, DBH/BATX) lantzen dugu goiburua Probintziako arduradunek etapa bakoitzerako prestatzen dituzten tutoretzak erabiliz.





Sagrado Corazón Mundaiz

Pastoraltza eta Gizarte Ekintza Saila

- Kartelak eta egutegiak ere jartzen ditugu ikastetxeko gela guztietan eta beste zenbait toki esanguratsutan Heziketa Elkarte osoak ezagutu, gogoratu eta landu dezan.

* **GOIZEKO OTOITZA**

- Ikastetxe corazonista guztietako ohitura da goizeko lehenengo 10 minutuak hausnarketa-otoitzerako erabiltzea. Une hori bereziki zaintzen saiatzen gara egunari zentzua eman nahian.
- Pastoraltza taldeak eguneroko otoitza egiteko materiala banatzen die ikasleei astero lagungarri gerta dakien.
- Goizeko lehen orduko irakaslea da une hori animatzearen erantzulea.

* **OTOIZTEGIA**

- Bi helburu nagusi ditu:
 - . Haurrari Jesusekin aurrez aurre topo egiteko aukera eskaini.
 - . Haurrari otoitz egiteko baliabideak eskaini.
- Lehen Hezkuntzako ikasmaila guztietan egiten dugu ekintza. Arloko arduradunak eta LHko zenbait irakaslek eramaten dute aurrera ekintza.
- Hamabostean behin egiten dugu erlijio saioan. Bi taldetan banatzen ditugu ikasleak. Bata otoiztegira doan bitartean, bestea ikasgelan gelditu ohi da erlijio irakaslearekin. Ordu erdia igaro ondoren, trukatu egin ohi ditugu taldeak.

* **BARNEKOTASUNA**

- Gutako bakoitzaren dimentsio garrantzitsua dugu barnekotasuna. Gure sentimenduak, oroitzapenak, emozioak, beldurrak, zalantzak, buruhausteak... geure pertsonaren parte dira. Gutzitan jarri ohi ditugu agerian esparru intimokoak baitira.
- Sinestunok uste dugu geure barnean egiten dugula topo Jainkoarekin. Beraz, garrantzitsua da barne-dimentsioa lantzea eta garatzea.
- DBH 1. mailatik Batxilergoko 2. mailaraino egiten dugu ekintza hau. Gela bereziak ditugu horretarako. Ikasmaila bakoitzak irakasle arduradun berezia du zeregin horretarako.
 - o DBH 1 eta 2. mailatan bitan banatu ohi dugu klase bakoitza otoiztegian egin ohi dugun bezala. Ordu bete irauten du talde bakoitzaren saioak. Urtean zehar zazpi saio ditu talde bakoitzak.
 - o DBH 3. mailatik aurrera saio bakoitza bi ordukoa da eta talde osoak zein erdiak hartzen du parte. Talde bakoitzean (ikasle gehiago izanik) bi irakaslek gidatzen dute saioa. Urtean zazpi saio egin ohi ditugu. Batxilergoan saio-kopurua txikiagoa da (3-5 artean).
- Barnekotasun arduradun orokor bat dugu. Bere ardura da saioen antolaketa prestatzea.

* **E EI / ERE**

- Maila guztietan irakasten dugu erlijio katolikoa gure ikastetxean HHn hasi eta Batxilergoraino.
- Erlijio liburuaren aukeraketa Erlijio mintegiak egin ohi du Pastoraltza



Sagrado Corazón Mundaiz

Pastoraltza eta Gizarte Ekintza Saila

taldearen eta Zuzendaritzaren onespenez. Joan den urtean zehar materialen azterketa egin dugu eta aldaketa batzuk egitea proposatu dugu. Ikastetxe osoan erlijioko liburua izango dugu eta SM argitaletxea aukeratu dugu erlijioa lantzeko.

***TUTORETZA-ELKARBIZITZAK**

- Ikasturteko lehenengo hilabetean egiten ditugu, Jesusen Bihotzaren Anaien fundazioko urtemuga inguruan (irailak 30). Tutoreek gidatu eta animatzen dituzte saio horiek. Helburua taldearen harremanak sendotzea, ikasle bakoitzaren ezagutza sakontzea eta ikasturtean zehar funtzionamendu egokia egon dadin taldean giro ona sortzea da. Era berean, urtean zehar landuko dugun balioaren hausnarketa-tutoretzak era egin ohi ditugu.

***BOKAZIO-ELKARBIZITZAK**

- Probintziako arduradunek prestatu eta antolatzen dituzte Bokazio-elkarbizitzak. LH 6. mailan; DBHko 4. mailan eta Batxilergoko 2. mailetan egin ohi dira goiz osoa erabiliz. DBH 1, 2, 3 eta batxilergoko lehen mailan 2 orduko saioa egin ohi dugu.
- Elkarbizitza hauen helburua bokazioa planteatzea da, gutako bakoitzak bizitzan bokazio bat duela deskubritzea eta zoriontsu izan nahi badu eta bizitzari zentzu osoa eman nahi badio bokazio horri erantzun beharra daukala.
- Bigarren hiruhilekoan egin ohi dira maila bakoitzean.

***OSPAKIZUNAK**

- Ikasleei zein irakasleei zuzendutako ospakizun desberdinak prestatu ohi ditu Pastoraltza taldeak.
 - o Ikasturte hasierako ospakizuna: irakasleentzat. Irailaren 30ean egin ohi dugu, Aita Andres Coindrerren egunean (irailak 30), hain zuzen ere.
 - o Abendualdiko eta Eguberrietako ospakizuna: ikasleentzat etapaka.
 - o Bakearen aldeko ospakizuna: bakearen aldeko hausnarketa eta otoitza egin ohi dugu astean zehar eta urtarrilaren 30 inguruan ikastetxeko jolastokian ikasle eta irakasle guztiek parte hartzen duten zeinu bat egin ohi dugu. Eguraldiak laguntzen ez duenean, ikasgelan bertan egin ohi dugu.
 - o Garizumaren hasierako ospakizuna (Hausterreguna): ikasleak etapaka. LHn otoiztegi-saioan egin ohi dugu.
 - o Anaia Polikarporen jaia: ikasleak eta irakasleak etapaka.
 - o Pazkoaren ospakizuna: irakasleentzat.
 - o Maiatzeko ospakizuna (Maria): HH eta LH etapaka.
 - o Jesusen Bihotzaren jaia: irakasleak eta ikasleak etapaka.
 - o Ikasturte amaierako ospakizuna: irakasleentzat.

***MISIO PARTEKATUAREN TALDEA (SUSTRAIAK)**

- Daukagun misio hezitzailea eta ebanjelizatzailea aurrera eraman ahal izateko beharrezkoa dugu bultzatu eta berrmatuko duen kristau elkarte. Gure lana, lan soila baino gehiago, misioa baita. Gure lanaren bidez, Jainkoak ebanjelizatzaera egiten digun deiari erantzuten saiatu ohi gara.



Sagrado Corazón Mundaiz

Pastoraltza eta Gizarte Ekintza Saila

- Ikastetxeko Anaiekin partekatzen dugu misio hori. Misio ebanjelizatzaile berera gaude deituta Anaiak zein laikoak.
- Hauek dira MPT-aren helburuak:
 - Gure heziketa lana misio baterako deia dela deskubritu: ebanjelizatzea, hain zuzen ere.
 - Jaso dugun karisma corazonistaren historia eta iturriak ezagutzea.
 - Harremanak sendotu elkarte bateko kide garela sentituz.
- Hileroko azken ostegunean biltzen da taldea ordu eta erdiz arratsaldeko 16:45ean.
- Bi arduradun ditu talde honek: Silvia eta A. Felipe Gutiérrez.

***AISIALDIA**

- 13 urte betetzen ditugu ikastetxean aisialdi-taldea (Twister) martxan jarri genuenetik.
- Egonkortu egin da urte hauetan zehar ekintza hau eta indar handia hartu du ikastetxean.
- Ikastetxeko ordutegitik kanpo pastoraltza lantzea du helburu jokoaren eta ekintza ludikoen bidez.
- Ikastetxeko LH 4. mailatik hasi eta DBH 4. mailarainoko ikasleei eskaintzen zaie ekintza. 110 bat ikasle izaten ditugu eta monitore eta aurre-monitore talde handia dugu ikasleen zerbitzura.
- Ikasle kopurua dela-eta bi talde egin ditugu: LHko ikasleak alde batetik eta DBHkoak bestetik.
- Gutxi gorabehera hamabostean behin egiten dugu ekintza (larunbatean 16:00etatik 18:00etara).
- Dauzkagun monitoreak ikasle-ohiak dira gehien bat.
- Silvia González irakaslea dugu ekintzaren buru nagusi; Jon Rodríguez LHko taldearen koordinatzaile gisa dago, Iñigo Jimenez eta Alex Viso DBHko taldearen koordinatzaile.
- Gasteizko ikastetxeko Coramis aisialdi taldeko kideekin ere egiten ditugu elkarbizitzak urtean bitan, bai Gasteizen edo Donostian bertan. Baita Telleriko Sputnik taldearekin ere ekintzak egiten saiatzen gara.
- Gure monitoreek parte hartzen dute Probintzia mailan antolatzen diren formazio saioetan eta barne formakuntzak ere jasotzen dituzte.
- Probintzia mailan urtean behin begirale corazonisten topaketa antolatzen da "Corazonista Aisialdiaren Eguna" izenpean. Aisialdi corazonista martxan duten ikastetxeek parte hartzen dute. Bertan Espainia osoko begiraleak elkartzen dira eta ekintzak eta formakuntzak antolatzen dira.
- Twister taldeko gure ikasleek parte hartzen dute Probintziak eskaintzen dituen udako ekintzetan:
 - . LHko 5-6: Altsasu.
 - . DBH 1-2: Gares.
- Baita DBH 3. mailatik gora eskaintzen diren udako ekintzetan ere:
 - . DBH 3-4: Santutegien ibilbidea.
 - . Batx 1: Santiago bidea.
 - . Batx 2: Frontera Sur.



Sagrado Corazón Mundaiz

Pastoraltza eta Gizarte Ekintza Saila

***GIZARTE EKINTZA**

- Gizarte Ekintza eta justizia-heziketa da ikastetxe corazonisten beste helburu nagusietako bat.
- “Corazonistas Fundazioa” da Probintzia mailan honetaz arduratzen dena. Ikastetxe bakoitzak ordezkari bat dauka lan honetaz arduratzen dena ikastetxe bakoitzean.
- Ikastetxeko Pastoraltza taldeko kide ere bada Giza Ekintzako arduraduna.
- Gizarte Ekintzak badu bere talde propioa astean behin biltzen dena.
- Ekintza eta kanpaina desberdinak prestatzen ditu Gizarte Ekintza taldeak ikastetxean. Ikastetxeko hezkuntza elkarteko kideen artean giza eta justizia-heziketa sustatzea dute helburu. Hona hemen nagusiak:
 - **DOMUND kanpaina:** Sentsibilizazio kanpaina egin ohi dugu Donostiako Eliz Barrutiarekin batera. Ez dugu dirurik jasotzen.
 - **Eguberri kanpaina:** Gure inguruan bizi diren zenbait pertsonak dituzten zailtasunaz sentsibilizatzea da. Eguberriek besteekin partekatzea deitzen digute. Dirua eta janaria jaso ohi dugu Frantziskotarren parrokiako Caritasera eramateko. Haiek arduratzen dira auzoko behartsuenei helarazten.
 - **Kanpaina solidarioa:** Hirugarren mundua deitzen dugun horretan nola bizi diren ikusi eta sentsibilizatzea du helburu. Proiektu corazonistaren errealitate zehatz bati laguntza eskaintzen saiatzen gara beti (misio esparruko ikastetxe corazonistak). Bi aste irauten du kanpainak. Lehenengoan sentsibilizazioa egin ohi dugu eta bigarreanean zenbait ekintza dirua jasotzeko: bokata solidarioa, lasterketa solidarioa, freskagarri solidarioa... **Gurdi solidarioa** ekintza ere eskaintzen diegu Batxilergoko ikasleei. Ikasle eta irakasle asko mugitzen dituen ekintza da. Donostiako zenbait supermerkatutara joan ohi gara taldeka bertan janaria jasotzeko. Jasotako guztia Frantziskotarren parrokiako Caritasera eraman ohi dugu.
 - **Bidezko merkataritza:** Joan den ikasturtean jarri genuen martxan Hezkuntza Elkartearen kontzientzia sustatu nahian. Ikastetxeko tabernan eros daitezke bidezko merkataritzaren produktuak. Kanpaina solidarioa eta familiaren eguna erabiltzen ditugu bidezko merkataritza sustatzeko.
 - **Merkatu txiki solidarioa:** Ikastetxeko MundaizEKO taldeak merkatu txiki solidarioa antolatu zuen joan den ikasturtean Eguberrietan familiek ikastetxera ekartzen dituzten bigarren eskuko produktuak salgai jarriz (liburuak, jostailuak, baserritar jantziak, kirol materiala...)



Sagrado Corazón Mundaiz

Pastoraltza eta Gizarte Ekintza Saila

***BOLUNTARIOTZA**

- Boluntariotza proposatzen diegu urtero ikasturteko lehen hiruhilekoan Batxilergoko 1. mailako ikasleei. Astean behin joan ohi dira nahi duten ikasleak TXARA aitona-amonen egoitzara 16:30etik 18:00etara. Ekintza desberdinak egiten dituzte bertako agureekin lehenengo hilabetean eta, handik aurrera, aitona-amonaren baten "ardura" hartzen dute binaka ordu eta erdi horretan. Azken urteetan COVID-a zela-eta, ez dugu egiteko aukerarik izan. Aurten berriro jarriko dugu martxan.
- Probintzia mailan bada beste zenbait lurraldetan (Peru, Dominikar errepublika...) boluntariotza esperientzia egiteko aukera. Irakasleei, ikasle ohiei edo aisialdiko monitoreei eskaintzen zaie. Oro har hilabete iraun ohi du udan. Bada boluntariotza-esperientzia 6 hilabetez edo urte osoan zehar luzatzeko aukera ere.
- Aisialdiko monitoreek egiten duten lana ere boluntarioa da, bai urtean zehar zein udako ekintzetan.


***UDAKO EKINTZAK**

- Ikastetxeak berak hemen bertan antolatzen dituen udako ekintzez gain (Uda HH, LH eta DBH) badira Probintzia mailan antolatzen diren beste zenbait zeinetan parte hartzen dugun. Lehen aipatu baditugu ere, honako hauek dira:
 - ✓ Altsasuko kolonia: LHko 5 eta 6. mailako ikasleentzat. 12 egun uztailean.
 - ✓ Gares-eko kolonia: DBH 1. eta 2. mailako ikasleentzat. 12 egun uztailean.
 - ✓ Santutegien ibilbidea: DBH 3. eta 4. mailako ikasleentzat. 10 egun uztailean. Gasteizen hasi eta Donostian amaitu zenbait santutegitatik igaroz: Estibaliz, La Antigua, Arantzazu, Loiola
 - ✓ Santiago bidea: Batxilergoko 1. mailako ikasleentzat. Santiago bideko 10 etapa Ponferradatik hasita. Uztailean.
 - ✓ Frontera Sur: Batxilergoko 2. mailako ikasleentzat. 15 egun uztailean. Ceutan "Cruz Blanca" taldeak zuzentzen duen udako eskola bateko haur etorkinekin parte hartzea bertako ekintzetan.



Sagrado Corazón Mundaiz

Pastoralza eta Gizarte Ekintza Saila



CORAZONISTAS